

Elgoibar 1344. zenb.  
XXXI. urtea - 2024/10/18



# Esku hutsik



# Osasun gida.....



RPS233/13  
**943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
**943 740 359**  
Deba  
**943 192 192**

**leku eder**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar  
**943 530 053**

RPS 271/12  
**ainhoa**  
Fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
**943 531 953**  
**669 565 745**

**fisio&mas**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 13  
**943 740 191 / 667 953 628**  
www.fisio-mas.com  
RPS 177/19

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA EUKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
RPS 203/16  
Toribio Etxebarria, 22  
Eibar  
**677 551 850**

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

## TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan  
**TONBOLAK** izan duen estimazioak  
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera,**  
Elgoibarko Izarraren tonbola  
jarriko dugu **Kalegoen plazan.**  
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



**Sorpresa kaxak**



**Ilerako produktuak**



**Telazko poltsak**



**Ohar-koadernoak**



**Kamisetak**



**Laberako ontziak**



**"Kanela, kalabaza eta gatxak" liburuak**



**Ohe-burukoak**



**Judash musika taldearen cd-a**



**Kotxerako eguzkitako babeskia**



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Izaro Etxegibel Soraluze

Euskara teknikaria

## Hetero



**"Ikusi ohi ez dena  
ikusarazteko egin du"**

**L**iteratura kritika da literatura testuak aztertzen, ebaluatzen, interpretatzen eta komentatzen saiatzen den jakintza arloa. Jakintza arlo horretan ekoizten diren testuei ere literatura kritika etiketa jartzen zaie. Literatura kritikari esaten zaie jakintza arlo hori jorratzen duten pertsonari .

Ni ez naiz hori. Ni naiz ohean etzan, eta liburua hasieratik amaierara arte arnasarik hartu gabe irakurri duena. Ni naiz, idazleak esan bezala, jolasa itxiko duen irakurlea, azaleko behatxulotik begira duen begiari beraren nerbio sistematik begiratzen dionean. Ondo daki. Jakin dakien moduan pertsonak eta pertsonaiak deskribatzen, ezaugarri fisikoak aipatu gabe, begiak ikusten duena alde batera utzita. Ekintzak deskribatzen daki, protagonistek egiten dutena da oinarri, nola egiten duten, zer esaten duten, nola eta nori esaten dioten, edo haietaz zer esaten duten besteek, zerk lotsarazten dituen, zer espero duten, nor miresten duten, zerk beldurtzen dituen, zertara ausartzen diren. Ekintzak, harremanak, sinesmenak... Pertsonaiak egiten eta esaten dutenagatik dira direnak, eta ipuinen oinarri.

Pentsatu izan duguna baina inork esan ez diguna idatzita ikusteak benetako egiten du, are benetakoago. Pertsonaiez gain, geografia ere oso gertuko zait, garaia... Horrek ere ezberdin sentiaraztea eragin dezake, ez dakit nola sentituko dituen ipuinak iruindar batek, ikastolan akatsei *erru* esango ote zieten han ere.

Hiru urtean zortzi ipuin sortu ditu idazleak, barruak eskatu ahala, irrika eta zauri pertsonalak protagonisten min bilakatu ditu, eta editorearen hitzetan, "ikusi ohi ez dena ikusarazteko egin du".

Beno, agian bada literatur kritika irakurri berri duzuna. Lasai, *berandu baino lehen, zauri baten antzera itxiko da iragana; ukitzen gaituen ura itsaso izango da arratsalderako.*

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### Segurgabetasunak

Aurreko eguneko aje emozionalarekin segitzen dudala idazten hasi naiz hau. Ez dakizuenontzako pasa den urriaren 8an Elgoibarko Berdintasun Sailak, Egoitzi Arbiol Albenizen (Hiruki Larroxa) laguntzarekin, herriko LGTBIQ+ kolektiboko pertsonon bizipenen bilketa egiten duen liburua argitaratu eta aurkeztu zuen Lila etxean. Noski, kolektiboko parte naizenez eta identitate, adierazpen, orientazio eta harreman desberdinak bistaratzearen aldekoa naizenez, ezin nintzen hitzordura faltatu eta han azaldu nintzen, berandu, ia beti bezala.

Toki gehienak okupaturik zeudela ohartu nintzen; pare bat zeuden libre lehenengo lerroan, Udaleko kideen ondoan alegia, edo bestela, azkeneko lerroko beste hiru bat. Udaleko ordezkarien ondoko eserlekuak libre zeuden ala ez sobera ziur jakin gabe, nahiko segurgabe, lehenengo lerroan jarri nintzen, Egoitzi hobeto entzuteko eta berari babes afektiboa eskaintzeko asmoz.

Solasaldiaren bukaeran norbaitek aipatu zuen gizonen presentzia eskasa zela, eta egia esanda, gelan bildutako gizonen ehuneko oso handi bat lanagatik edo interes politikoengatik zegoen han, kolektiboko parte izan ala ez. Baina maiz atzeman dugu gizonen falta ekimen feministetan, azken finean, gizonak izaten dituzte identitate, orientazio eta adierazpen segurgabetasunik handienak, euren pribilegioa jokoan baitago. Hala ere, nik aspaldi neukan hausnarketa hori eginda eta beste zerbaitek deitu zidan atentzioa gehien.

Nolatan izan zitekeen posible herria eta bertako LGTB+ kolektiboa protagonista zuen liburua

aurkezpenean aretoko lehen lerroko eserlekuak Udaleko ordezkariak okupatzea beste behin? Ez al zen, baina, herritarron pentsamendu kritikoa sustatzeko sortutako ekimena? Pentsatzen dut agian ahaztuko zitzaizela herriaren zerbitzura daudela, herritarrontzat lan egin behar dutela eta herriak aukeratu zituelako daudela gaur dauden postuan. Edo agian ez, agian ez zaie hori ahaztu, ezta azkeneko hauteskundeetan lortutako beharakada ere. Akaso hori da lehenengo lerroa daramatzana, okupatzen duten tokia galtzearen segurgabetasuna, alegia.

Ainhoa Garaikoetxea De Andres

### Zorionak Juliani eta zorionak Hezur Museoari 20. urteurrenean!

Primerako ekintzak antolatu zituzten astebukaeran zehar. Mikel Agirre arkeologoak gain, beste aditu batzuk gerturatu ziren Elgoibarrera euren ezagutzak heldu eta umeein partekatzerara.

Eskertzekoa da honelako aukerak gure herrian bertan izatea. Arkeologoak esan zuen: "Ez dakizue zer daukazuen hemen Julianekin! Duen birproduktzio bildumak ez du parekorik Europa osoan". Beraz, elgoibartarrok jakin beharko genuke baloratzan daukaguna.

Eskerrik asko, Julian!

R.E.G.



V. URTEURRENA

**Jesus Mari Ansuategi Cobo**

2019ko urriaren 15ean hil zen, 54 urte zituela.

**Joan zinen gu hemen utzita,  
baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.**

Zure familia





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Bidegorrian ibiltzeko araudia errespetatu egin behar da:**

"Bidegorrian ibiltzeko araudi bat dago, eta hori errespetatzeko eskatu nahi diet herritarrei. Oinezkoak ezkerretik ibili behar dira, eta bizikletak zein patineteak eskumatik. Jende askok ez du errespetatzen araudi hori, eta ezusteko bat baino gehiago izaten da horregatik. Bidegorriaren hasieran dago araudia azaltzen duen kartela, baina okertuta dago, eta lurreko seinaleak borrotuta daude. Beraz, dagokionari eskatu nahi nioke kartela ondo jartzeko eta lurreko seinalizazioa ere egokitzeko, eta erabiltzaileei, berriz, araudia betetzeko. Era berean, bizikletaz edo patinetaz ibiltzen direnei, polikiago ibil daitezela eskatzen diet, denon segurtasuna bermatzeko".



### **Mendaroko ikastola atarian edozein modutan lagatzen dute gurasoek autoa, haurren bila joaten direnean:**

"Egunero, 16:30ean, Mendaroko eskolako kanpoaldean gertatzen denari buruzkoa da nire kexa. Gurasoek edozein lekutan aparkatzen dute autoa haurra hartzeko, baina, oso arriskutsua da bereziki autoa zebra bide ondoan lagatzea, umeak ikustea oztopatzen duelako. Une horretan autoz pasatzen garenok

hainbat gertakizun arriskutsu bizi izan ditugu, bereziki, egun euritsuetan. Ikastolara eta udaletxera jo dut egoera honen berri emateko. Ikastolatik mezu bat zabaldu zuten iaz gurasoen artean, baina Udaletik ez dut erantzunik jaso. Erregistroan sartu ditut bi kexa, eta dagoeneko pasatu da urtebete lehenengoa jarri nuenetik, eta iruditzen zait erantzun bat merezi dudala. Neurriak hartu berar dira berehala, zerbait larria gertatu aurretik".



**"Jakin dugu anbulatorioko aldapan gordeta dauden aparkalekuak King Kong-eko bizilagunentzako direla, beraien etxepeko garajeetan obretan ari direlako. Nola da hori posible? Espazio publikoa herritarren garaje pribatuan obrak egiten ari direlako gordetzea ez da bidezkoa. Anbulatorio horrek gabezia handiak ditu, eta bat aparkalekuarena da. Gure adinekoak osasun zentzura autoz eramaten ditugunean ez dago non aparkatu, eta horretarako gorde beharrean aparkalekuak, obretan ari diren bizilagun batzuentzat gordetzen dira?":**

BARREN astekariak Udalera jo du, eta Maialen Gurrutxaga alkateak eman dio erantzuna: "Eskerrik asko zure iradokizuna bidaltzeagatik. Urazandi zubiaren obren ondorioz bideratu dira autoak bertara, izan ere, garajeetako obra hori obra publiko baten ondorioz sortu da, eta ez garaje pribatu bateko lanen ondorioz. Bide batez, garaje horretako bizilagunei eskerrak eman nahi



dizkiet, beraien jabetza barruan egin beharrekoa den eta elgoibartar guztientzat onuragarria izango den lan bat errazteagatik. Ulertzen dugu hurrengo hilabeteetan Urazandi zubiaren obrek eragozpenak sor ditzaketela, eta hori kontuan hartzen dugu. Seguru gaude Urazandi zubiaren hobekuntzak gure herriarentzat oso garrantzitsuak izango direla eta denon onurarako azpiegitura hobekuntzak eskainiko dizkigula. Herritarren pazientzia eta ulermena eskertzen ditugu".

## Haurrak hazteko zailtasunen bat duten gurasoei laguntzeko boluntarioak behar dituzte

Asteazkenean aurkeztuko dute Elgoibarren *Familiak eskuz esku, Home-Start Gipuzkoa* programa, haurrak hazteko zailtasunen bat duten gurasoei laguntzeko Baketik fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu duten programa. Programa hori gauzatzeko boluntarioak behar dituzte gure bailaran, eta laguntzeko prest dagoen jende horrengana iristeko batzar informatiboak egiten ari dira han-hemen. Testuinguru horretan egingo dute Elgoibarko saioa ere, urriaren 23an, Aita Agirre kulturgunean, 18:30ean hasita.

Baketik-etik azaldu dute *Home-Start*

*Gipuzkoa* mentoretza proiektu bat dela, duela hamarkada batzuk Erresuma Batuan sortutako *Home-Start* programan oinarritzen dena eta bere emaitza onengatik Europako Batzordeak Ebidentziak Oinarritutako Programan oinarritzen dena. *Home-Start Gipuzkoako* doako eta isilpeko laguntza-zerbitzua eskaintzen die haurrak hazteko eskarmentua duten boluntarioen bitartez. Aldi berean, programak lantalde profesional bat ere badu, boluntarioei etengabeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen dizkiena, familiekin lehen aldiz batzen direnean nahiz gero, harremanak irauten duen denbora guztian.

## Herri barruan trenez edo autobusez egiten diren bidaiak lagunduko dituzte diruz

Herri barruan mugitzeko tren a edo Lurraldebuseko autobusak hartzen dituztenei laguntzeko deialdia onartu du Elgoibarko Udalak. Orain arte, 44 laguntza-eskaera onartu dituztela jakinarazi dute Udaletik, baina zehaztu dute laguntza eskatu ez dutenek azaroaren 29ra arteko epea dutela horretarako. Eskaerak

telematikoki aurkez daitezke, Elgoibarko Udalaren webgunearen bidez ([elgoibar.eus](http://elgoibar.eus)), edo aurrez aurre, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ).

Laguntzek 2024. urteko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean egindako bidaiak estaltzen dituzte.

## Ongizate pertsonala eta naturarekiko harremana batzen dituen 'Gym Berdea' egitasmoa nahi du martxan Mendaroko Udalak

*Gym Berdea* proiektu berritzailea jarri nahi du martxan Mendaroko Udalak, eta aurkezpenera deitu ditu herritarrak urriaren 24rako (18:30ean, jubilatuen taberna ondoko lokalean). *Gym Berdea* ekimena William Bird doktoreak sortu zuen, osasunaren prebentzioan eta hezkuntzan espezializatutako medikuak, eta egitasmoa sortu zenetik ia hiru hamarkada pasatu ostean, 6.000 pertsonak baino gehiagok hartzen dute parte. Ongizate pertsonala lortzen laguntzen du naturarekin bat eginez. Hain zuzen ere, lorategiak, ortuak eta basoak sortzeko eta mantentzeko lanetan aritzen dira proiektura batutakoak. Adin ezberdinetako jende-talde egonkorrak osatzen dituzte, eta herri eta auzoak edertzeko egiten dute lan. Euskal Herrian, Larrabatzun hasi zuten *Gym Berdea* 2016an,



Udalaren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzarekin. Orduetik hona, lorategiak, ortuak eta basoak sortu dituzte, baita ehunka arbola, zuhaixka, fruta-arbola eta lore landatu ere. Astez aste zaindu ere egiten dituzte.

## Minbiziaren Aurkako Debabarreneko Elkarteak ekintza-sorta aurkeztu du udazkenerako



**M**inbiziaren Aurkako Debabarreneko Elkarteak debabarrendarrei zuzendutako lau jarduera antolatu ditu udazkenerako: arnasketa tailerra, *Fisioterapia eta ebakuntza* izenburuko hitzaldia, senideentzako dolu-tailerra eta ibilaldi osasuntsuak. Lau jarduerak Eibarren egingo dituzte, doan, baina izena eman beharko da, telefonoz 943 457 722 zenbakira deituta edo emailaz [gipuzkoa@contraelcancer.es](mailto:gipuzkoa@contraelcancer.es) helbidera idatzita. Elkarteak Eibarren dauka egoitza, Ardantza kaleko 11. zenbakian.

Eguaztenean hasi zuten minbizia dutenentzako antolatu duten arnasketa-tailerra, eta azaroaren 20ra luzatuko da. Lorena Carnevali adituak ematen du tailerra, eta guztira sei saio izango dira, astean behin. Erlaxazio gidatuak eta arnaska kontzienteak ari dira lantzen bertan. Urriaren 24rako, berriz, *Fisioterapia eta ebakuntza* izeneko hitzaldia emango du onkologian aditua den Eugenia Ollokiegi fisioterapeutak. Hitzaldi hau ere pazienteei zuzendutakoa da, 18:00etan hasiko da eta prozesu onkologikoetan kirurgiarako prestatzeaz eta ondorenaz buruz hitz egingo du, fisioterapiaren ikuspegitik.

Azaroaren 7an, bestetik senideei zuzendutako dolu-taldea hasiko dute. 12:00etan elkartuko dira Eibarren, Ardantza kalean duten lokalean. Azkenik, jakinarazi dute ibilaldi osasungarriak hasita daudela baina oraindik ere posible dela haietan izena ematea. Kasu honetan, herritar guztiei zuzendutako eskaintza da.

## Kintoen Eguna ospatuko dute Elgoibarren bihar, hilaren 19an



Kintoen Eguna izendatu dute Elgoibarren biharkoa. Laugarren edizioa izango da aurtengoa. Iaz, kintoen hogeitau bat taldek parte hartu zuten, eta festa giroa nagusitu zen Elgoibarren, eta aurten ere horixe lortzea dute helburua deitzaileek. Egunari kolorea emateko, Mauxitxa txaranga irtengo da kalera. Kalegoen plazatik abiatuko da kalejira, 12:30ean, eta gauerako, Kresala taldearen kontzertua iragarri dute. 1995ean sortutako bertsio taldea da Kresala, ibilbide luzekoa. 1.500 kontzertutik gora eman ditu, eta *Una noche de rock* kontzertua emango du bihar, Maalan, 22:00etan hasita.

## Bigarren eskuko azoka egingo dute Mendaron, domekan, urriaren 20an

Herritar talde batek antolatu du bigarren eskuko azoka, Udalaren laguntzarekin. Urtero legez bi helburu jarri dizkiote azokari: erabilitako arropa eta bestelakoen berrerabilpena sustatzea eta herrian giroa sortzea. Goñati frontoian jarriko dituzte postuak, eta antolatzaileek jakinarazi dute momentuan 30en batek egin dutela eskaera. 11:00etan zabalduko dute azoka eta 15:00ak arte egingo da bisitatzeko aukera. Frontoian bertan mahai bat ere jarriko dute haurrek eskulanak egin ahal ditzaten.

Azokak irauten duen tarte horretan, Uztargi tabernako terrazan Conde Valdemar ardotegiak emandako produktuak zozkatuko dituzte 12:00etatik 14:00etara.

## Banatu ditu Txankakuak stock kale azokako zozketako sariak

Stock kale azokan parte hartu zuten bezeroen artean 400 euro zozkatu zituen Txankakua Merkatari Elkarteak eta joan zen barikuan banatu zituzten sariak. Honako lau lagunak dira saridunak: Mainer Vargas, Olatz Astigarraga, Amanda Gonsalvez eta Maria Rosmina Solis. 100 euroko erosketa bono bana jaso zuten saridunek, Txankakuako dendetan gastatzeko.



### Irailean behera egin du langabeziak

Udako hilabeteetan gora egin ohi du langabeziak, baina aldi hori amaitzerako egonkortzeko joera izaten du. Eta hala izan da aurten ere. Debabarreneko iraileko langabezia-tasa %10,18koa izan da. Bakarrik Eibarrek eta Soraluzek gainditu dute tasa hori; gainerako herriek %10etik beherako tasa dute. Elgoibarrek %9,05ekoa, 483 langaberekin, eta Mendarok %8,60koa, 85 langaberekin.

Gipuzkoako Lan Behategiak emandako datuen arabera, iraila amaieran abuztuan baino 108 langabe gehiago zeuden erregistratuta Debabarrenako enplegu bulegoetan: 2.634. Elgoibarren aurreko hilean baino 28 gutxiago zenbatu dituzte eta bi gutxiago Mendaron.

Bi hilabetez jarraian gora egin ostein,

langabeziak behera egin du Euskal Autonomia Erkidegoan irailean, baina Nafarroan igo egin da hirugarrenez. Guztira, 107.996 langabe daude EAEn, eta 29.612 langabe Nafarroan. Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua milioi bat pertsonatik gorakoa da berriro ere EAEn eta Nafarroan, berriz, 212 afiliatu gutxiago daude hilabeteen. Guztira, 309.828 pertsona daude Gizarte Segurantzaren izena emanda Nafarroan.

EAEn zerbitzuen sektorean jaitsi da batez ere langabezia, aurreko hilabeteen baino 3.111 langabe gutxiago (% 3,92) zenbatu baitituzte. Gainerako sektoreetan jaitsiera txikiagoa izan da: Industrian, 181 gutxiago (% 1,72); eraikuntzan, 103 gutxiago (% 1,72) eta nekazaritzan, 86 gutxiago (% 4,6).

### Haziak bildu eta mikologiara gerturatzeko irteera urriaren 27an

Morkaiko Mendizale Elkarteak herriko ikastetxeekin batera antolatzen dituen irteeren barruan, haziak bildu eta mikologia ezagutzeko irteera iragarri dute urriaren 27rako. Maalan elkartuko dira, 09:30ean, eta Morterika aldera joko dute. Mendi ibilaldi bat egingo dute eta bidean ikusten dituzten haziak eta perretxikoak bilduko dituzte. Antolatzaileek telazko poltsa bat eramateko eskatu dute. Herri Eskolan amaituko dute ibilaldia eta han Aranzadiko kide Unai Fernandezek mikologiaren inguruko azalpenak emango dizkiete. Izen ematea astelehenean zabalduko dute.

### Gernika-Palestina herri ekimenak elkarretaratzeak deitu ditu urriaren 21erako

Urriaren 21ean mobilizatzaera deitu du Gernika-Palestina herri ekimenak, genozidioaren kontra egiteko. Bakea, justizia eta itxaropena eskatzen dute herri guztientzat eta astelehenean Euskal Herriko udaletxe aurreetan elkartzeko deia egin dute 19:00etarako. Mendaron bat egin dute deialdiarekin eta zabaldu dituzte kartelak.



## Elgoibarko Lanbide Heziketaren testuinguru historikoa azaltzeko kafe-tertulia egingo dute urriaren 23an Elgoibarren

Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urtemugako ekintzen barruan, argazki proiektzioa eta kafe-tertulia antolatu dute urriaren 23rako Elgoibarren. Jubilatuen biltokian egingo dute, 17:00etan hasita, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera, bereziki Lanbide Heziketako irakasle, ikasle eta langile guztiak. Pello Arrieta historialariak Elgoibarren Lanbide Heziketak gaur duen pisua izateko eman diren baldintzak aletuko ditu, argazki historikoez baliatuta. Atzera begirako bat izango da, Elgoibarko iraganari eskainitako berbaldia. Erdi Aroko burdinoletan aritzen ziren errementarien egitekotik hasi eta 60ko hamarkadara arteko errepasoa egingo du Arrietak eta tarte horretan Elgoibarko Lanbide Heziketaren historian izan diren mugarrak zehaztuko ditu, eraikin esanguratsuak erakutsiko ditu, eta historia egiten lagundu duten hainbat elgoibartar ekarriko ditu akordura. Arrietak berak azaldu duenez 60ko hamarkadako argazkia



da proiektatuko duten berriena, eta irudi horien bidez Elgoibarren Lanbide Heziketako eskoletan eta enpresetan ofizioak erakusten egindako lana aitortuko da, balioan jarritz hasierako irakasle haiek eta gerokoek hartu zuten ardura eta ikasleek eurek egin zuten ahalegina.

Antolatzaileek zehaztu dute kafea eta pastak izango direla kafe-tertuliara batzen diren guztientzat.

### Urriaren 20an hasiko dute ikasturtea 'Aldeni Alden' aisialdi programakoek

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako neska-mutilentzako egitasmoa da Elgoibarko Izarraren *Aldeni Alden*, eta urriaren 20an hasiko dute aurtengo ikasturtea. Gaba Beltzarekin lotutako tailerra prestatu dute. Bertan, ibilaldi beltzerako beldurrezko apaingarriak sortuko dituzte Elgoibarko kaleak ilun eta beldurgarri lagatzeko helburuarekin. Sortuko dituzten apaingarri horiek urriaren 27an, domeka, ipiniko dituzte kalean. Bi ekintzetan etxera eraman ahal izateko apaingarriak sortzeko aukera ere izango dute partaideek, eta, gainera, mokadutxoak egingo dute elkarrekin. Interesatuak izena eman beharko dute. Informazio gehiagorako 943 741 746 telefonora deitu daiteke.



Azarorako ekintzak ere prest dituzte: hilaren 10ean aurrera begirako ekintzak prestatzeko berbaldia egingo dute, eta hilaren 16rako Karakateko Igoera elkarrekin ikusteko plana egin dute.



*Iraia Silva, Izaskun Igoa, Alba Mazo, Guiomar Agote eta Maddi Hiriart.*

# AITORTZARIK GABEKO HERIOTZAK

  Ainhoa Andonegi

**Haurdunaldian, erditzean edota jaioberritan hiltzen diren umeen heriotzarengatik egiten den doluari esaten zaio dolu perinatala, eta dolu prozesu hori sarritan isilean egiten dute familiak. Haurren heriotzak tabua izaten jarraitzen du oraindik, eta egoera hori bizi duten familiak babesik gabe geratzen dira askotan. Familia horiei laguntzeko asmoz sortu zuten Esku Hutsik elkarte egoera hori bera bizi izan zuten familiak. Bilbon sortu zuten ofizialki 2021ean, aurrez ere lanean ari ziren arren, eta gaur egun Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan dihardu lanean elkarteak. 190 bat familia biltzen ditu, eta Iraia Silva eta Alba Mazo elgoibartarrak ere elkarteko kide dira.**

**O**sasunaren Mundu Erakundearen (OME) datuen arabera, lau haurdunalditik bat ez da amaierara iristen, umeak hil egiten direlako haurdunaldian, erditzean edo handik

egun gutxira. Haurdunaldiko 22. astearen artean eta bizitzako lehen urtean gertatzen den heriotza perinatala da, OMEk emandako definizioaren arabera, eta galera horren ondoren bizitzen den saminari dolu perinatala esaten zaio. Ume batzuk hil egiten dira amaren sabelean, eta ama batzuk, arrazoi desberdinak medio, eten egin behar izaten dute haurdunaldia. Egoera edozein dela ere, esku hutsik irteten dira familia horiek ospitaletik, bidean zetorren umea hil egin delako. Gai horri buruzko hitzaldia izan zen Elgoibarren martitzenean, hain zuzen ere, Dolu Perinatalaren Nazioarteko Egunean. Guiomar Agote Mendaroko Ospitaleko psikologoak eman zuen hitzaldia, eta segidan, doluan dauden Maddi Hiriart bergararrak eta Ondarrun bizi den Izaskun Igoak beraien bizipenak kontatu zituzten. Esku Hutsik elkarteak antolatu zuen ekitaldia, dolu perinatala gizarteratzeko dagoen beharraz jabetuta. Iraia Silva elgoibartarra da Esku Hutsik elkarteko kideetako bat, eta berak eman zuen elkartearen berri. Bere bizipen pertsonalaren ostean iritsi zen Silva elkartera. 2016an eduki zuen Silvak bere lehenengo semea: Paul. Haurdunaldiaren 34. astean zegoen Silva, eta gau batean konturatu zen umea ez zela mugitzen. "Ordura arte asko mugitzen zen, gauetan bereziki, ostikada asko ematen zizkidan, eta gau hartan ez nuela umearen mugimendurik igarri konturatu nintzen". Hasieran uste zuen bere irudipena izango zela, eta burua

beste zeozertan entretenitzen saiatu zen. "Ez dakit nola, baina gau hartan sofán loak hartu nuen. Esnatu nintzen, eta hasi nuen eguna, baina jarraitzen nuen Paul sentitu gabe". Eguenean zehar aritu zen umearen sehaska muntatzen, lagunekin irten zen kalera, ibiltzera joan zen, txokolatea jan zuen... Baina hala ere, ez zuen ezer sentitzen. Ez zuen sinistu nahi gertatzen ari zena, baina bere barnean bazekien zerbait ez zihoala ondo. Pasatu zen eguna eta erabaki zuen bigarren gaua nahigabe hartan ezin zuela pasatu. Ospitalera joan ziren, eta bere usterik txarrena konfirmatu zion ginekologoak: umeak ez zeukan bihotz taupadarik. "Erditu egin behar dut, ezta?, galdetu nion ginekologoari, entzunak nituelako aurrez beste batzuen bizipenak. Une hura oso gogorra izan zen". Autopsia egin zioten umeari, eta bat-bateko heriotza izan zela esan zieten, ez zegoela bestelako arrazoirik.

Dolu prozesua egin zuen, eta gerora beste bi ume izan zituen, eta apur bat koskortzen hasi zirenean, bere egoeran zeuden familiei laguntzeko beharra sentitu zuen: "Beti neukan hori barruan, besteei laguntzea; nolabait zor nion Pauli". Informazioa bilatzeari ekin zion eta Esku Hutsik taldea aurkitu zuen Interneten. Bere burua eskaini zion, eta orain, elkartearekin kolaboratzen du.

Esku Hutsik taldeak familiei ematen die babesa, baina Osakidetzarekin ere hartu-eman handia dauka, dolu perinatala profesionalizatzeko. Ospitale guztietan daude orain Esku Hutsik taldearen informazio orriak. Umea hiltzen zaien familiei laguntza burokratikoa ematen zaie, baina elkarteko kideek uste dute harago joan behar dela. Familiekin lan egiten duten langileak formatzeko lanean dihardute, eta protokolo bateratu bat ezarri nahi dute ospitaleetan. "Orain arte oso desberdina zen haurren heriotzaren ondoko bizipena, ospitalearen arabera", adierazi du Silvak. Esku Hutsikek egindako lanari esker EAEko eta Nafarroako ospitale publiko gehienetan gaur egun badago protokoloen bat, baina, "orain behar dena da protokolo hori bateratzea". Silvak Mendaron izan zuen Paul, eta ez dauka jaso zuen tratuarekiko inolako kezarik. Umea ikustea gomendatu zieten, eta hartu zuten berarekin egon eta agurtzeko tartea ere. Argazkiak egin zizkieten, eta gorpuarekin zer egin nahi zuten erabakitzeko aukera ere izan zuten. "Une horretan beldurtuta

## *"Hasieran ematen zigun erreparoa umea ikusteak, baina berehala konturatu ginen egin genuen onena izan zela"*

- IRAIA SILVA -

zaude, eta hasieran ematen zigun erreparoa umea ikusteak ere, baina berehala konturatu ginen egin genuen onena izan zela". Hamabost eguneko buelta horretan, Silvaren ezagun bat antzerako egoeran suertatu zen, baina Donostiako Ospitalean, eta hari ez zioten umea ikusteko eta gorpuaren ardura hartzeko aukerarik eman. "Nahi genukeena da ondo egindakotik ikastea profesionalek eta gaizki egindakoak ez errepikatzea". Esku Hutsik elkarteak ateak zabalik ditu eta modu asko daude taldearekin kolaboratzeko. Amabitxi zerbitzua eskaintzen dute, norbere egoera berean dagoen beste ama batekin hitz egiteko, ospitaletan ematen dituzten zakutxoak ere josi daitezke elkartearentzat eta ekarpen ekonomikoak ere onartzen dituzte. Elkartearekin harremanetan jartzeko: 722 822 039 / [eskuhutsik@gmail.com](mailto:eskuhutsik@gmail.com) / [www.facebook.com/dueloeskuhutsik](http://www.facebook.com/dueloeskuhutsik) / Instagram: [@esku\\_hutsik](https://www.instagram.com/esku_hutsik)

### **GIZARTERATZEKO BEHARRA**

Dolua, oro har, isilean eta bakardadean egiten da, baina dolu perinatala "ia ukatua" dago gizartean. "Gure dolua ez dago onartuta; ezkutatu egiten da, eta oraindik ere, tabua da". Une horietan ingurukoek laguntzeko asmoz esaten dituzten esaldi horiek ere sekulako mina egiten dutela uste du Silvak, nahiz eta badakien intentzio txarrik gabe eginikoak direla, baina gaia gizarteratuta egoera "deseroso" asko sahiestuko lirakeela uste du. Esku Hutsikek ume horiei merezi duten aitortza egitea eskatzen du, ume horiek existitu direlako. "Askotan tratatzen gaituzte ezer gertatu izan ez balitz bezala, baina gertatu da, eta hitz egiteak eta bizipenak konpartitzeak asko laguntzen du, eta aldiz, isiltasunak, min ematen du". Silvak egin zuen dolua, eta itxi zuen atea, eta horrek lagundu egin zion, baina badaude egoera beste modu batzuetan bizitzea erabakitzen dutenak eta hori ere errespetatu egin behar dela uste du. Hala ere, adituek dolua egitea gomendatzen dute, bestela,



bizitzan aurrera egin ahala, momenturen batean edo bestean min hori berriz agertzen delako.

### **DOLU TALDEA**

Alba Mazo ermuarra da, baina Elgoibarren bizi da gaur egun, eta bera ere Esku Hutsik elkarteko kidea da. Bi alaba dauzka bizirik, eta beste bi hil zaizkio jaio aurretik. 2020an hil zen Libe, haurdunaldiko 38. astean. Azken txanpan zegoen, eta egun batetik bestera geratu egin zen Liberen bihotza. Mendaron erditu zen umeaz, eta azaldu du ez daukala kezarik Mendaroko Ospitalean eman zieten tratuaz, baina dolu horretan lagunduko zion profesional baten laguntza behar zuela sentitzen zuen. Guiomar Agoterekin jarri zen harremanetan, Mendaroko Ospitaleko Aringarrien Unitateko psikologoarekin. Egoera berria zen Guiomarrentzat ere, ordura arte bizitzaren azkenetan zeuden gaixoei eta haien familiei laguntzen zielako berak, eta sekula ez zuelako landu haurren heriotza. Mazok argi zeukan egoera horretan dauden familiek ere behar dutela mina konpartitzeko gune bat, eta horrela sortu zuten Mendaroko Dolu Taldea. 12-14 bat lagun biltzen dira hilero, eta bakoitzak bere bizipenak kontatzen ditu, libreki. "Ez dugu inor epaitzen, espazio librea da, eta bakoitzak beretik hitz egiten du. Barre egiten dugu, eta negar asko ere bai, amorratu egiten gara, baina oso lagungarria da zure egoera berean dauden familiekin hitz egitea", adierazi du Mazok.

Liberen heriotzaren ostean ezagutu ziren Guiomar Agote eta Alba Mazo, eta Guiomarrek dio Liberi esker jarri zutela martxan dolu taldea 2022an. Mazok aitortu du doluaren mina hobeto eramaten lagundu ziola taldeak: "Tunel ilun batean

*"Tunel ilun batean nengoen, shock egoeran, eta dolu taldeak lagundu zidan argia ikusten"*

- ALBA MAZO -

nengoen, shock egoeran, eta taldeak lagundu zidan argia ikusten. Gorputzari entzun egin behar zaio, eta tristura horri lekua egin". Liberan doluan zegoela, 2022an berritua geratu zen haurdun, baina hamabigarren asteko ekografian zerbait ez zegoela ondo esan zion ginekologoak. "Bi astera ekografia errepikatuko zidatela esan zidaten, eta egoera horretan bi aste oso-oso luzeak egiten dira". Hamabosgarren astean konfirmatu zioten bizitzarekin bateraezina zen anomalia bat zeukala umeak, eta haurdunaldia etetea erabaki zuten. "Une horretan ere dolu taldearen babes oso garrantzitsua izan zen niretzat, pila bat lagundu zidaten guztiek". Umea hiltzearen mina ez da ahazten, baina min horrekin bizitzen ikasi egiten da. Mazok argi dio beti eramango duela dolu berarekin, eta bera lau umeren ama dela, bizirik dauden birena eta hil ziren beste biena. Egoera hori bizi duten familiei dolu taldean parte hartzea gomendatzen die, laguntzen duelako barruko mina askatzen: "Ni beti izan naiz asko hitz egitekoa, bai lagunekin eta familiakoekin, baina dolu taldean kontatu ditut beste inori kontatu ez dizkiodanak". Babes handia sentitu du, konektatu egin du dolu taldeko kideekin eta pazienteak baino gehiago, lagunak dira orain. Dolu perinatalaren inguruan aurrerapausoak eman dira azken urteetan, baina uste du oraindik asko dagoela egiteko, eta horrelako dolu taldeak ospitale guztietan egon beharko liratekeela.



## GUIOMAR AGOTE

MENDAROKO OSPITALEKO ARINGARRIEN UNITATEKO PSIKOLOGOA

# “Umea ikusi eta agurtzea gomendatzen dugu”

**G**uiomar Agote (Eibar, 1975) Matia Fundazioko psikologoa da, eta La Caixa Fundazioarekin elkarlanean, Mendaroko eta Donostiako ospitaleetako aringarrien unitatean egiten du lan, bizitzaren amaieran dauden pazienteei eta haien familiei laguntzen. Orain dela hiru urtetik hona dolu perinatala ere lantzen du, eta hilean behin dolu taldea gidatzen du.

**Umea galtzen duten familiak une horretan oso galduta egoten direla esan dute. Zertan laguntzen diezue Mendaroko Ospitalean?**

Gainerako dolu prozesuetan bezala, lehenengo fasea shock egoera izaten da, eta egoera horretatik irteten laguntzen diegu. Oso galduta egoten dira. Espazio bat behar izaten dute beraien emozioak azaleratzeko ere, dolu prozesu horretan azaltzen direlako hasieran tristura, gero amorrua eta haserrea... Dolu guztiak bakardadean pasatzen dira normalean, baina haurrengatiko dolua are bakartuago eramaten da. Jendeak ez ditu konpartitzen heriotza horiek, askotan familian ere ez dira kontatzen eta bakardadean egiten da dolua. Heriotza bera, oro har, isilean eramaten da, ez zaigu gustatzen heriotzari buruz hitz egitea, baina hil dena ume bat denean, orduan eta gutxiago kontatzen da. Umeen heriotza denontzat da gogorragoa, baita profesionalontzat ere. Adinekoen heriotza onartuago daukagu denok, baina umeen galera mingarriagoa da, eta horregatik segitzen du gai honek tabu izaten.

**Umea galdu berri duen familiari, zein gomendio ematen diozue?**

Familia bakoitzak erabakitzen du une horretan zer egin nahi duen, baina Mendaroko Ospitalean badaukagu protokolo bat eta hori azaltzen zaie. Guk gomendatzen dugu umea ikustea, argazkiak egitea eta despeditzeko tarte hartzea, bestela, denbora pasatzen denean ikusi ez izanaren pena agertzen da. Umea oroitzeko zerbait edukitzea

positiboa da, eta horretarako oroitzapen kaxatxoak prestatzen dira. Haurrari agurra egitea ere gomendatzen diegu, gainerako heriotzetan egiten den bezala, zauri hori ixteko. Dolu batean tristura onartu eta kanporatu egin behar da. Gaur egun badirudi beti pozik egon behar dugula eta horrek azkenean gaixotu egiten gaitu.

**Dolu perinatala gizarteratu behar dela aldarrikatzen du Esku Hutsik elkarteak.**

Bai, dudarik gabe. Buru Osasun Saila hasi da gai hau tratatzen, baina oraindik asko dago egiteko. Behar dena da protokolo bateratu bat ospitaleetan, eta profesionalak formatzea. Mendaron egiten dena emagin eta ginekoloen iniziatibaz egiten da, eta hori goitik etorri behar da. Partxe batzuk jartzen hasi dira, baina benetako baliabideak ipini behar dira.

**Mendaroko Ospitalean dolu taldea duzue. Zertan datza?**

Hilean behin biltzen gara dolu prozesuan dauden familiekin, dolua elkarrekin egiteko. Azken batean norbere egoeran dauden familiekin biltzeko gunea da, bizipenak eta sentimenduak konpartitzekoa, eta elkar ulertzekoa. Momentu horietan esaldi gogorrek entzun behar izaten dituzte askotan, esaterako, ez dela horrenbesterako izan edo edukiko dutela beste ume bat eta lasai egoteko... Baina familia horiek ume hori nahi zuten; ez beste bat. Ume hori existitu da, eta ume horrek merezi du bere lekua. Dolu taldeak oso lagungarriak dira. Amari eta aitari lagundu behar zaie, bie. Askotan aitari gogorren papera egitea tokatzen zaio eta beraiek ere izugarri sufritzen dute, nahiz eta umea ez duten barruan eraman. Baina bikotearekiko kezka zama eramaten dute, kasu batzuetan arriskuan egoten direlako emakumeak, eta bikotekidea zaintze horretan, ez dute euren burua zaintzen. Minari lekua egin behar zaio, sendatu ahal izateko.



### *Txomin Urbieta Arakistain*

2024ko urriaren 10ean hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Maitasunez, beti gure bihotzetan.***



### *Txomin Urbieta Arakistain*

2024ko urriaren 10ean hil zen, 91 urte zituela.

***Beti izango zaitugu gogoan.***



### *Maria Pilar Esnaola Egaña*

2024ko urriaren 12an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Inoiz itzaliko ez den  
zeruko izarra bihurtu zara.  
Beti gurekin, asko maite zaitugu.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

### *Luki Maidagan Aierdi*

2023ko urriaren 16an hil zen, 69 urte zituela.

***Zer gogorra den urte bat zu gabe egotea;  
asko gogoratzen gara zutaz.  
Beti egongo zara gure bihotzean.  
Muxu handi bat.***

Etxekoak



# 125 bat lagunek parte hartuko dute gaur zortzi Mendaron egingo duten Txirristaka Kantuz jaialdian

Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurreneko ekintzen barruan, Txirristaka Kantuz jaialdia antolatu dute Mendaron gaur zortzira (urriak 25) In Leike kultur elkarteak, herritar talde batek eta Udalak, eskualdeko lau musika eskolekin lankidetzan. Mutriku, Deba, Elgoibar eta Mendaroko musika eskoletako ikasleek parte hartuko dute bertso jarrien jaialdian, guztira 125 bat lagunek. Ekitaldia plazan egingo dute, 19:00etan hasita, baina eguraldiak okerrera egingo balu, frontoira aldatuko lukete lekuz. Urriaren 23rako zehaztuko lukete, aldaketarik balego.

Propio aukeratu dituzte lau herri horietako musika eskolak antolatzaileek, Txirristaka bizi izan zen garaian Mendaroko lurak lau udalerrri horietako parte izan zirelako. Musika eskola bakoitzari Txirristakaren hiru-launa bertso-sorta banatu zizkieten orain urtebete inguru eta sorta horientzako jantzi musikala sortu dute musika eskoletako ikasleek jaialdirako, estilo, erritmo eta instrumentazio librea. Jaialdi ondorenean, parte-hartzaile guztientzako mokadua egongo dela ere iragarri dute antolatzaileek.

## 'Txirristaka' liburua

Martxoan hasi zituzten Mendaron Txirristaka Urteko ospakizunak. Bertsolaritza eta bertso jarrien idazketa sustatzeko, Txirristaka Bertso Paper lehiaketa antolatu zuten martxoan, urtero errepikatu asmo dutena aurrerantzean, eta ekainean, bertsoa eta antzerkia uztartu zituen ikuskizun berezia egin zuten kalez kale, Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak lagun hartuta. Gaur zortzira iragarri duten jaialdia izango da urteurreneko hirugarren ekintza nagusia, baina ez azkena. Izan ere, ondo bidean, azaroan dute aurkeztekoa haurrentzako *Txirristaka* liburua. Andoni Egaña bertsolariak idatzi du liburua eta Ainara Azpiazu *Axpik* ilustratu. Eusebio Mugertza *Txirristakak*

badu bere liburua, Antonio Zabalak 1974an *Auspoa* bildumarako idatzitakoa, eta liburu hartan aipatzen diren datu biografikoetan oinarrituta idatzi du haurrentzako liburua Egañak, baina asmatutako beste datu batzuk eta berea duen umorea gehituta.

Azaroan izango da hori azken ordukorik ezean, eta abenduaren 15erako, kantu bazkaria iragarri dute. Egun horretan jaio zen Mendaroko bertso jartzaile handia, eta oroitzeko, bertso jarrien saioa antolatu dute Eñaut eta Unai Agirre anaiekin. Aizpe elkartean izango da bazkaria, eta antolatzaileek aurreratu dute aurrerago jakinaraziko dutela noiz eta non eman beharko den izena bazkaritarako.

## ALFONSO GUILLO

Musikaria

✍️ Ainhoa Andonegi

Alfonso Guilloren musika proiektu berria da Alguillo&Alkimistak. Lagunez inguratuta dator, eta taldekideen artean Silvia Hernandez elgoibartarra ere badago, koruetan. Jesus Aranberri (teklatura), David Gorospe (bateria), Luis Llavori (gitarra), Txeles Albizu (perkusioa), Ane Ugalde eta Eider Varela (koruak) dira gainerako taldekideak. Orain dela hiru bat urte hasi zen musikari elgoibartarra proiektua gauzatzen, eta domekan egingo dute taldearen aurkezpena jendaurrean. Aita Agirre kulturagunean izango da kontzertua 12:30etik aurrera. 'Burua makurtu gabe' diskoko kantua eskainiko dituzte, eta tartean abesti ezagunen batzuren bertsiok ere joko dituzte.



*“Disko berriko kantak eta pare bat kanta ezagunen bertsiok joko ditugu domekako kontzertuan”*

**Alguillo&Alkimistak proiektua aurkeztuko duzue domekan. Proiektuaren aurrerapen bat egingo diguzu?**

Aspalditik neukan buruan proiektu berri baten ideia, baina ideiatik gauzatzera denbora asko pasatu da. Orain dela hiru bat urte hasi nintzen proiektua lantzen, eta hau nire proiektua dela esan dezaket. Abestiak eginda nituen, eta ikusi nuen baneukala aukera buruan bueltaka neukan proiektua gauzatzeko. Leok'k taldean taldekide nituen musikari batzuei egin nien proiektu berrira batzeko proposamena. Teklista eta gitarra-jolea izan ziren taldera batzen lehenengoak, eta poliki-poliki forma ematen joan nintzen proiektuari. Argi neukan nolako soinua nahi nuen, eta horretarako perkusionista behar nuen, ez soilik bateria-jole bat, eta koroak ere nahi nituen; emakumezkoen ahotsak nahi nituen

koroetan. Niri gustatu izan zaizkidan taldeek ere sartu izan dituzte emakumezkoen ahotsak, baina hasieran gizonezkoek imitatu egiten zituzten emakumezkoak koruak egiterakoan. Kostatu zitzaidan topatzea nahi nuena. Eszenatokian segurtasunez eta garbo apur batekin irtengo zen norbait nahi nuen. Edurne Lasarengana jo nuen aholku eske, eta Silvia Hernandezen izena eman zidan. Musika Eskolako irakaslea da, koru gazteen zuzendaria eta eskarmentu handia dauka. Gustura hartu zuen Silviak eskaintza, eta berak lotu zituen hirukotea osatzeko beste bi ahotsak. Perkusionista ere lortu genuen bateri-jolearen bitartez; beraz, baneukan taldea.

**Lortu nahi zenuen musika oso argi zeneukala aipatu duzu. Zein estilotako musika sortu duzue?**

Definitu dut, baina gero irakurri dut egin



dudan definizioa eta ez dakit ondo azaldu dudana. Esperimentala dela idatzi dut, baina hori edozer izan daiteke. Rock sustraiak baditu, jakina, musikari hauekin derrigorrean izan behar du rock kutsua. Hiru emakumezko daude koroetan, eta horrek gospel ukitua ere ematen dio, eta abesti batzuetan afro-kubatar salsa doinuak ere badaude, Rithm&blues tokea ere badaukagu... Rock-a oinarrian izanik, baina estilo desberdinen eragina duen musika modernoa dela esan dezakegu.

### **Zortzi lagun zarete, herri desberdinetakoak. Nola moldatzen zarete entseguetarako?**

Hasieran esan zuen norbaitek elefante bat zela hau, eta kostatuko zitzaigula mugitzea, baina ondo moldatzen gara. Astero elkartzeko gara Zestoan, baina gure entseguak ez dira izaten kantuak ikasteko. Bestelako lan dinamika bat daukagu. Taldekide bakoitzak bere atalak etxean lantzen ditu. Ordenagailuz partekatzen ditugu kantuen zatiak eta bakoitzak berea lantzen du. Entsegu egunerako bakoitzak bere atala ikasita eramaten du, eta horrek asko errazten ditu gauzak.

### **'Burua makurtu gabe' izena jarri diozue diskoari. Zein ezaugarri ditu lehen lan honek?**

Hamar kantu ditu, denak nik sortutakoak, bai letrak eta baita musika, baina taldekideen ekarpenak ere jaso ditut eta ekarpen horiekin osatuta daude kantuak. Atal batzuk nire etxean grabatu ditugu, beste batzuk Zumaiako estudio

batean, eta azkenik Eñaut Gaztañagarekin egin ditugu nahasketak, Zestoako Gaztain estudioan. Oso txukun geratu da, eta ni gustura nago lehenengo lan honekin. Diskoaren azala Eneritz Iturbe arrasatearrak egin du. Neska baten aurpegia ageri da, nire ustez oso ondo zetorkiona diskoari eta azalera eramateko baimena eskatu nion. Ez zigun arazorik jarri, eta oso ondo geratu dela iruditzen zait.

### **Domekan estreinatuko zarete zuzenean. Zer eskainiko duzue?**

Ikusleak talde bat ikusiko du, ondo fusionatutako taldea. Pozik, baina aldi berean urduri ere bagaude Elgoibarren jotzeko. Diskoko hamar kantuak joko ditugu, eta hainbeste kantu berriren artean, pare bat kanta ezagunen euskarazko bertsioak ere joko ditugu. Kantu guztiak euskaraz idatzi ditut, eta ingesezko kantu batzuk ere ekarri ditut euskarara. Ez da erraza ingelesetik euskaratzea, ingelesa oso monosilabikoa delako, baina egin dugu hori ere. Abestietan denetariko gaiak landu ditut. Nostalgia, ilusioak, ametsak, tristura... Ea jendeak nola erantzuten duen. Momentuz Elgoibarko kontzertua bakarrik daukagu lotuta, baina gustatuko litzaiguke aurrera begira beste herriren batzuetan ere jotzea. Musikagintzaren sektorea ez dago erraza, talde berri asko daude eta leku bat egitea zaila da. Baina niri hau gustatzen zait, musika bizi dut eta horrek betetzen nau. Ordu pila bat eskaintzen dizkiot musikari, eta musika eginez gozatzen dut.



## Jai egun handietako giroa jarri zuen zapatuan EinGok Mendaron, In Leikeren eskutik



**B**igarren urtez jarraian, *Plazan Dantzan* ekimena antolatu zuen Mendaroko In Leike kultur elkarteak zapaturako, Udalaren laguntzarekin, eta kanpoko eta Mendaro bertako dozenaka lagun elkartu ziren kantuan eta dantzan egiteko. Eguerdian hasi zuten ospakizuna, Aitzbeltz tabernan egin zuten kantu bazkariarekin. In Leikeko kideek propio festarako sortu zituzten zapiak banatu zituzten izena emandakoan artean, eta EinGokoek ekarri zuten kantutegia. 35 bat lagun elkartu ziren bazkaritan, eta bazkalostean, euskal kantutegiaren errepaso luze-zabala egin zuten. EinGokoek inprobisatutako kantu jolasak ere egin zituzten, taldeka, eta umore dosi handiko

bazkalostea izan zela nabarmendu dute parte hartu zutenek. Ondoren, 18:00etan, erromeria hasi zuten. Mendarozabalgo plazan bertan hasi zuten erromeria, eta hiru bat dantza dantzatu ondoren, Herriko Enparantzarako bidea hartu zuten, bidean dantzarako geldialdiak eginez. Saiorik luzeena herriko plazan egin zuten, eta jai egunetako itxura hartu zuen Herriko Enparantzak. Kalez kaleko erromeria Azpilgoetan amaitu zuten. Euskal kantutegiko abesti mitikoak abestu zituzten han elkarrekin, lepotik helduta eta eskuko telefonoen argitara, eta zapatukoak jarraipena izango zuela esanda eman zuten amaitutzat Plazan dantzan ekimena antolatzaileek.

### Lekeitioko Euskal Zine Bilerarako aukeratu dute Jone Arriolaren 'Hor Konpon' film laburra

Lekeitioko Euskal Zine Bilerarako aukeratu dute Jone Arriola Lobete zinemagile elgoibartarraren *Hor Konpon* film laburra. Rita eta Berta lapurren inguruko istorioa kontatzen du filmak. Auto gorri zahar batean bidaia hasiko dute bi lagunek, eta bazterrak nahastuko dituzte bidean, beren egunerokoan topatzen ez duten adrenalina horren bila. Hamalau minutuko iraupena du film laburrak eta estreinakoz Lekeitioko Euskal Zine Bileran proiektatuko dute, euskara hutsez egiten den zinema jaialdiarik zaharrenean. Urriaren 17tik



22ra bitartean ospatuko dute Lekeition jaialdia, eta urriaren 18an proiektatuko dute, 19:00etan, *Hor Konpon*. Jaialdi bererako iaz grabatu zuen beste film labur bat ere aukeratu diote Arriolari: *Dena asmatuta dago*. Urriaren 18an proiektatuko dute hori ere, 19:00etan.

### 'Ama ez diren emakumeak' mahai-ingurua urriaren 21ean

'Ama ez diren emakumeak' izenburuko mahai-ingurua antolatu dute Elgoibarren, Eider Perez eta Arantxa Alvarezekin. Urriaren 21ean

egingo dute mahai-ingurua, Lilan, 18:00etatik 20:00etara. Gaztelaniaz izango da eta ez da izenik eman beharko entzutera joateko.

## Jolasaren astea antolatu dute Elgoibarren

Jolasaren astea antolatu dute datorren asterako Atxutxiamaiak, eta Elgoibarko Udal Ludotekak eta Gaztelekuak. Adin tarte ezberdinak bereiztu dituzte eta ekintza ezberdinak antolatu dituzte adin tarte bakoitzerako. Orik 5 urtera bitartekoek jolas librean ibiltzeko aukera izango dute urriaren 24an eta 25ean, Leku Ederreko parkean, 17:30etik 19:00ak bitartean. Euria egingo balu, egun bakarrera mugatuko lukete eskaintza, urriaren 24ra, eta Elizako arkupeetara aldatuko lukete lekuz.

5 eta 12 urtera bitartekoentzako ekintzak urriaren 22tik 26ra bitartean izango dira. Hasteko, urriaren 22an, Bingo solidarioa egingo dute San Lazaro egoitzan 17:00etatik 19:00etara, baina parte hartzeko izena eman beharko da aurrez ludotekan. Urriaren 23an, berriz, jolasak sortuko dituzte ludotekan HH5etik LH2ra artekoak, adinaren arabera bi txandatan banatuta. LH2tik LH3ra artekoak 16:30etik 18:00etara batuko dira,

eta HH5 eta LH1ekoak 18:00etatik 19:30era. Urriaren 24an, berriz, kanpo jolasak egingo dituzte HH5etik LH2ra arteko adin-tartekoek, Urazandin, 17:00etatik 19:00etara (Euria eginez gero, ludotekan). Hilaren 26an, goizez, 10:00etatik 13:30era bitartean erronka jolasa egin egingo dute, bai eta artile tailerra ere hilabeteko azken zapatuko azokaren baitan (ludotekan elkartuko dira goizean).

12 urtetik 18 urtera bitarteko nerabe eta gazteentzat hiru eguneko eskaintza prestatu dute. Hilaren 23an, impact jolasa egingo dute, 17:00etatik 19:00etara, gaztelekuan; hilaren 24rako pintxo txapelketa antolatu dute, 17:30etik 19:00etara, eta urriaren 27an, Nintendo switchen jolasteko tarteak izango dute, 17:30etik 19:00etara. Ekintza guztiak gaztelekuan izango dira.


Azkenik, urriaren 25ean, barikuan, plazan jolasteko eguna izango dute adin tarte guztietako haurrek, 17:00etatik 19:00etara.

### 'Primal prime' antzezlana taularatuko dute Herriko Antzokian gaur zortzi, urriaren 25ean

Komedia musikala da *Primal prime* eta *a cappella* kantatzen dute oholtzan antzezleek. Urriaren 25ean Herriko Antzokian taularatuko dute lana, eta sarrerak salgai daude dagoeneko webgunean: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus). Dena den, Herriko Antzokiko lehiatilan bertan ere eskuratu ahal izango dira, zapatuan, 18:15etatik 20:45era bitartean, edo egunean bertan. Sinopsiak honela dio: Online edukia duen plataforma berri bat



merkaturatzeaz dago, eta marketineko azkar ustekoek lau abeslariko talde bat kontratatzea erabakiko dute. Musika, umorea eta fantasia uztartzen ditu lanak.



### Egur arte tailerreko haurren lanekin erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarren

Egur arte tailerreko ikasle gaztetxoek lanak ikusgai jarriko dituzte gaur Elgoibarko Kultur Etxean, eta hilaren 26ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, asteleheneetik zapatara, 18:30etik 20:30era bitartean.

## Nestor Basterretxearen mendeurrenaren harira bi ekitaldi antolatu dituzte Makina Erremintaren Museoan

Mendea bete da Nestor Basterretxea artista bermeotarra jaio zela. Margolaritzan, eskulturan, zineman, diseinuan eta, orobat, euskal kultura suspertzeko lanean nabarmendu zen Basterretxea, eta haren omenez, hainbat ekintza egiten ari dira Euskal Herrian mendeurrenaren barruan. Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa ere batu da Basterretxearen izatea nabarmentzeko ahaleginera, eta bi ekintza antolatu ditu urria-azarorako. Hasteko, urriaren 24an (eguna), 18:30ean, *Operación H* filma proiektatuko dute. Euskadiko Filmategiko Ion Lopezek aurkeztuko du filma, eta artistaren lan zinematografikoaren inguruko hitzaldia emango du. Film berezia da *Operación H*, Nestor Basterretxearen sormena ondo islatzen duena.

Basterretxeak zuen "begirada aske eta sortzailea" zabaldu nahi dute gazteengan museoko arduradunek, eta helburu horrekin *Begirada sortzaileak -NB 100* ikus-entzunezko lehiaketan parte hartzeko deia ere egin diete 12 eta 16 urte bitarteko gazteei. Astelehenean, urriaren 21ean, zabalduko dute lehiaketan parte hartzeko epea eta azaroaren 18a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Aurkeztutako ikus-



entzunezko lanek *Operación H* filma izan beharko dute inspirazio iturri eta Makina Erremintaren Museoan irudiak edota soinuak bildu beharko dituzte. Museoa ezagutzeko beren webgunera jo daiteke ([museoa.eus](http://museoa.eus)), baina nahi duenak zabalik izango du museoa, grabazioak egiteko. Baldintza bat bete beharko du, baina, aurkezten den lanak: *Operación H* filma ikusi ondoren hausnarketa bat egin beharko da eta Makina Erremintaren Museoan begirada sortzailea nola aplikatu pentsatu. Lanek gutxienez 60 segundu eta gehienez 120 segundu iraun beharko dute. Ikus-entzunezko lanak norberak bere Instagram kontuan partekatu beharko ditu, irekian. Publikazioaren deskribapenean [@memuseoa](https://www.instagram.com/memuseoa) etiketatu beharko da lehiaketaren sustatzaileek lana ikusi ahal izateko.

Epaimahai aditu batek hiru lan apartatuko ditu aurkeztutako guztietatik eta museoko Instagram-en bidez [@memuseoa](https://www.instagram.com/memuseoa) emango du sarituen berri Informazio gehiagorako: [museoa.eus](http://museoa.eus).

### 'Kanpora sartzan' antzezlanaren taularatuko dute Herriko Antzokian urriaren 27an



Xabin Fernandez aktoreak berak lehen pertsonan kontatutako istorioa da *Kanpora sartzan*. Fernandezi giza immunoeskasiaren birusa (GIB) detektatu zioten boluntario gisa odola ematera joan zen batean. Fernandezek ez zuen horrelako ezustekorik espero, eta depresioak eta antsietateak jota pasatu zituen hainbat urte. Eta hamar urtez ezkutuan gordetako egi eta bizipen mingarriak kontatzen ditu antzezlanean. Urriaren 27an Aita Agirren izango da antzezlanaren, 12:30ean. Sarrera doan izango da.



## 20 urte historiaurrea ezagutarazten

Umetatik izan du Jose Julian Marquezek historiaurrean interesa, eta duela 20 urte lehen gizakiak egiten zituen moduko lan-tresnak egiten hasi zen. Benetakoen moduko piezak egiten hasi zen, harriekin sua egiten ere ikasi zuen eta historiaurrean ehizarako erabiltzen zituzten teknikak ere bai, eta Hezur Museoa ere zabaldu zuen. Asteburuan, 20. urtemuga ospatzeko, museoko ateak ireki zizkien herritarrei, eta bere pasioa dena zabaldu.



## Oinarrizko txirrindularitza babesteko eskatu dute milaka lagunek Donostian



**G**ipuzkoako Federazioko orain arteko zuzendaritzakoek deituta, milaka lagun elkartu ziren domekan Donostian, oinarrizko txirrindularitza babesteko eskatzeko. Manifestazioarekin bat egin zuten Elgoibarko Lagun Taldekoek eta Mendaroko Txirrindulari Elkartekoek ere, eta bi herrietatik joandako hainbat lagun batu ziren Donostiako manifestaziora, beren taldeetako mailotak jantzita asko. *Konponbidea. Txirrindularitzaren Eskubideen alde* pankarta zabaldu zuten Gipuzkoako Federazioko kideek eta hainbat txirrindularitza elkartetako ordezkariak Anoeta parean eta haien atzetik abiatu ziren denak, tartean txirrindulari gazte asko, gaur gaurkoz Gipuzkoan lasterketarik jokatu ezinda daudenak. Pankartaren atzetik oinezkoak irten ziren lehenengo, manifestaziora bizikletaz inguratu zirenak gero, eta atzetik, lotura motoetakoak eta klubetako autoak. Gipuzkoako trafikoko arduradunek jartzen dizkieten oztopoak salatu zituzten eta konponbidea eskatu. Uztailean dimisioa eman zuen Gipuzkoako Federazioko zuzendaritzak egin zuen manifestatzeko deia eta Euskal Herri osoko taldeetako ordezkariak batu ziren manifestaziora, bai eta kanpotik etorritako hainbat txirrindulari ere, arazo larrienak Gipuzkoan dauden arren. Gipuzkoan antolatzen dira lasterketa gehien, eta arazo handienak ere hemen dituzte klubek lasterketak

antolatzeko, bereziki Ertzaintzari eman zaien erabaki ahalmenagatik, baina, soka tenkatuz gero, gaur Gipuzkoan dituzten arazoak gainerako lurraldeetara ere zabaldu daitezkeela ohartarazi zuen Santi Osorok, uztailean dimisioa eman zuten arte Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko presidentea izan denak. Horregatik txirrindularitza eta kirola gustuko dituzten guztien babeska eskatu zuten domekarako, eta erantzun zuten herritarrek. Osorok txirrindularitzaren balioak zerrendatu zituen eta txirrindulari gazteek eta klubetan musutruk ari diren boluntarioek egiten duten lana nabarmendu. Ondo egindako lanari nazioartean egiten dioten aitortza Euskal Herriko agintariek ez egitea tamalgarria dela esan zuen, eta nabarmendu oinarrizko txirrindularitzarik gabe ez dagoela eliteko txirrindularitzarik. "Kirol honi esker, nazioartean herri bat gara eta ez daukagu aurkeztu beharrik", esan zuen.

Oraingoz, 2025eko egutegia airean dagoela esan zuen Osorok, baina itxaropenerako mezu neurtua ere zabaldu zuen. Esan zuen joan zen egunean bilera izan zutela Jaurilaritzan, eta "hitz politetatik" ekintzetara salto egiteko aukera ikusi zutela, baina gauzak guztiz argitu arte eta behar diren pausoak eman direla ziurtatu arte ez dela denboraldirik hasiko, "lehen ere hitz politik entzunak ditugulako, baina gero arazo berdinekin topo egin dugulako beti". (manifestazioan jasotako adierazpenak **barren.eus** atarian).

## Leire Egaña bederatzigarren Espainiako txapelketan eta Arkaitz Egaña hirugarren Euskadikoan

Emakumezkoen Espainiako Ehiza Xehe Txapelketa eta gizonezkoen Euskadikoa jokatu zituzten joan zen asteburuan, eta, batean zein bestean, onenekin lehian aritu ziren Leire eta Arkaitz Egaña neba-arrebak. Puebla de Alcocer (Badajoz, Espainia) herrian jokatu zuten zapatuan emakumezkoen Espainiako Ehiza Xehe Txapelketaren 11. edizioa. Guztira 36 ehiztari lehiatu ziren eta Mar Bastard ehiztari valentziarrak irabazi zuen txapelketa Delta txakurrekin batera. Bi eper ehizatuta 1.100 puntu batu zituen. Murtziako ordezkari Fini Soriano eta Zeus txakurra izan ziren txapeldunordeak, hauek ere bi eper ehizatuta eta irabazleen puntu kopuru berdina batuta, baina Sorianok Mar Bastardek baino bi minutu geroago aurkeztu zuen ehizatutakoa kontrol postuan. Leire Egañak 360 puntu batu zituen erbi bat ehizatuta, eta bederatzigarren postuan sailkatu zen, aurreko urtean lortu zuen emaitza berbera, hain justu ere.

Domekan, berriz, gizonezkoen Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketa jokatu zuten Zanbranako El Castillo ehiza barrutian. Lehiakideen artean zen aurreko asteburuan leku berean Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Arkaitz Egaña ehiztari



elgoibartarra eta txapela jazteko faborito nagusietarikoa zen La Union elkarteko ordezkaria. Ez zen gaizki aritu, zazpi eper, faisai bat eta galeper bat ehizatuta 4.357 puntu batu baitzituen, baina puntu gehiago eskuratu zituzten bigarren postuan sailkatu zen Asier Ansak eta txapela irabazi zuen Mikel Torne ehiztari bizkaitarrak. Tornek 5.309 puntu batu zituen, bederatzi eper, faisai bat eta hiru galeper ehizatuta.

### Kepa Arrizabalaga, Irun Hiriko pala txapelketako finalera



Kurpil Kirolak antolatzen du Irun Hiria pala txapelketa eta 28 bikote aritu dira lehian txapelketaren 17. edizioan: hamabi bikote lehen mailan eta hamasei bikote bigarren mailan. Abuztuaren 31n hasi zuten txapelketa eta bihar, urriaren 19an, jokatuko dituzte bi mailetako finalak Irungo Uranzu pilotalekuan. Lehen mailako finalean arituko dira Kepa Arrizabalaga elgoibartarra eta Iker Epelde azkoitiarra. Hodei Arregi eta Mattin Garbisu izango dituzte aurkari finalean. Finalera ailegatu diren bi bikoteek tanto baten aldeaz gainditu zituzten finalerdietako kanporaketak. Arregik eta Garbisuk 25-24 irabazi zioten Loidio eta Daguerreri. Bigarren finalerdian, Arrizabalaga eta Epelde 24-25 gailendu ziren Arizmendiren eta Huegunen aurkako neurketan.

## Aritz Esnaola mendararra eta Maite Urteaga zumaiarra indartsuenak Idotorbeko Igoeran

**M**otza bezain gogorra da Idotorbeko Igoera, 3,8 kilometroko bidean %9,93ko batez besteko pendiza baitu. Aurten gainera, hego haizea eta temperatura altuekin jokatu zuten Elgoibarko Lagun taldeak antolatzen duen proba, zapatuan. Azken urteetan baino txirrindulari gehiago batu ziren irteeran,

40 guztira; tartean emakume bakarra. Probako lehen metroetatik erritmo bizia jarri zuen Iker Lizarazuk eta lehen hiru kilometroetan eutsi zion lehen postuari, bigarrengoari alde nabarmena aterata gainera. Herri Gain paretik aurrera aldea murriztuz joan ziren jarraitzaileak eta Aritz Esnaola izan zen horietan indartsuena. 19 urteko mendaroarrak kilometro baten faltan egin zuen bat Lizarazurekin eta elkarrekin egin zituzten ikusle gehien batzen diren igoeraren azken zatira arteko metroak. Han jo zuen eraso Esnaolak eta bakarrik gurutzatu zuen helmuga. 14 minutu eta 5 segundoan osatu zuen igoera [Iker Eskibelek du errekorra: 12:48]. Bigarren sailkatua, Lizarazu, 22 segundora iritsi zen, 14:27ko denborarekin. Hasier Murua sailkatu zen hirugarren postuan (14:47). Maite Urteaga zumaiarrak igoera aparta osatu zuen eta Maite



Maiorak 2016tik zuen errekorra ondu zuen 16:25eko denborarekin. Duela hiru urte hasi zen txirrindularitzan eta 2022ko Idotorbeko Igoeran ere hartu zuen parte. Hiru minutuan ondu zuen orduan egin zuen denbora. (Irabazleen adierazpenak eta laburpen bideoa [barren.eus](https://www.barren.eus) atarian). 🚴 Asier Orbea.





## Kalegoen plazan erabakiko da domekan nor den Euskal Herriko aizkolari onena

**D**omekan, Emakumezkoen Euskadiko Aizkora Txapelketako final nagusia jokatuko dute Kalegoen plazan, bigarren urtez jarraian. Proba berean gizonezkoen bigarren mailako kanporaketa ere antolatu du Euskadiko Herri Kirol Federazioak. 13:00etan izango da Kalegoen plazan, eta euria egingo balu, Olaizaga kiroledegian jokatuko lukete. Egungo txapeldunak, iaz leku berean jokatutako finala irabazi zuen Nerea Arruti urnietarrak, bost aizkolari izango ditu aurkari: Nerea Sorondo, Oihana Fernandez de Barrena, Laiene Pikabea, Lucia Orbe eta Irati Astondoa.



### La Roita erronkan emakumeen parte hartzea sustatu nahi dute

La Roitakoak hasiak dira udan egin ohi duten erronka prestatzen, eta bosgarren erronkan emakumeak ere nahi dituzte lehian. Horregatik, parte hartzera deitu dituzte. "Azken lau urteetan izandako norgehiagoka estuari jarraipena emanez, aurten emakumeen parte hartzea bultzatu nahi dugu", adierazi dute. Interesatuak eurekin jarri daitezke harremanetan, aurrez aurre, edota Instagramen duten kontuaren bidez.





**Mikel Leon**  
inmomikel@gmail.com

**747 459 343**  
San Ignazio kalea 1,  
20870 Elgoibar

 @mikel\_inmobiliaria

ETXEA SALGAI (GARAJEA BARNE): Santa klara kalean, **325.000€**




**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, ospitalean... Titulu soziosanitarioa daukat. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, ospitalean... Titulu soziosanitarioa daukat eta erizaina naiz.

Erreferentzia onak. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **643 505 662**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia. **637 222 318**

Adinekoak zaindu edo etxeetan garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia handia daukat. **641 121 795**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat. **632 708 954**

Garbiketa lanetan jarduteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **677 069 232**

Garbiketa lanetan jarduteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **624 534 735**

**KINTOAK**


1969an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 9n. 12:00etan Kultur Kafean batuko dira, luntxa egiteko, eta gero bazkaria egingo dute. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte kontu honetan, azaroaren 5erako, izen-abizenak zehaztuz: ES22 3008 0182 87 5305561929


Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure etxebizitza komunitatean ur-kontagailu komun bakarra daukagu guztiontzat, eta presidenteak ur-kontagailu indibidualak jartzeko agindu dio enpresa bati, gainerako etxe-jabeekin hitzik egin gabe. Bizilagun batzuk ez gaude ados egin duenarekin. Zer egin dezakegu?</b></p> <p>Komunitatearen intereseko gai guztiak etxe-jabeen batzordean aztertu eta adostu behar dira. Bileran bat egin beharko da, eta deitzaileak gai-ordenan jaso beharko du proposamen hori. Hartutako erabakia balekoa izan dadin, etxe-jabe guztien 3/5ek onartu beharko dute, batzarrean egon edo ez. Gehiengo hori lortzen bada, bizilagun guztiak behartuta egongo dira hartutako erabaki hori onartzera. Etxe-jabeen bizkar hartutako erabakiengatik erantzun beharko du presidenteak.</p> <p><b>Gomendioa: batzarrera bizilagun guztiak agertzen ez bada eta ez bada legez eskatzen den gehiengo hori lortzen, aktan jaso beharko da, eta akta bilerara agertu ez diren bizilagun guztiei bidali beharko zaie. Horiek 30 eguneko epea izango dute aktan jasotakoaren gainean iritziren bat emateko. Ezer esaten ez badute, hartutako erabakiarekin gus-tura daudela interpretatuko da.</b></p> <p><b>ASOCIACIÓN GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</b></p>
--	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Ane!** Etxeko txikiak 5 urte dagoeneko! Ederki ospatu genuen atzo! Patxo handi bat etxekoan partez.




Zorion potolo bat, **Kattalin!** Muxu asko, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Libe,** zure 10. urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Naroa,** gaur 9 urte bete dituzulako. Ondo pasa zure egunean! Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, ahizpa Malenen partez.



Zorionak, **amatxo eta Sara,** datorren astean urteak beteko dituzuelako. Besarkada bat etxekoan partez.



Zorionak, **Ane!** 8 urte bete dituzu! Muxu handi bat familiakoan eta lagunen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
barren.eus webgunean

 **943 743 704**

 **688 769 657**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.  
20870 ELGOIBAR

**Galdetu  
prezioak  
eta gustura  
erantzungo  
dizugu.**

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH SMS4HTW00E  
ONTZI-GARBIGAILUA**

**ATG D**

**549 €**



- 13 zerbitzu
- VarioFlex saskiak
- Extra lehorketa funtzioa
- Home Connect

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 18 BARIKUA

**18:30** Egur arte tailerreko umeen lanen erakusketa. Kultur Etxean.

**19:00** Kontzertua: 'Gora musika'. Elgoibarko Udal Musika Bandak antolatuta, Kalegoen plazan.

## 19 ZAPATUA

**10:00** Elgoibarko artisau feria. Maalako parkean.

**10:30** Aitzbeltz kobazulora irteera. Altzolako jai batzordeak antolatuta. Altzolako frotnoian batuko dira.

**16:30** Sorpresa. Adinekoen hilabetearen barruan, Jubilatuen Biltokian.

### Kintada Eguna

**12:30** Mauxitxa txaranga. Kalegoen plazatik.

**22:00** Kontzertua, Kresala musika taldearekin. Maalako parkean.

## 20 DOMEKA

**12:30** Kontzertua: Alguillo & Alkimistak. Aita Agirre kulturgunean.

**13:00** Emakumezkoen Euskadiko Aizkora Txapelketako finala. Kalegoen plazan. (Euria bada, Olaizaga kirolegian).

## 21 ASTELEHENA

**18:00** Mahai-ingurua: 'Ama ez diren emakumeak'. Eider Perez eta Arantza Alvarezekin. Lilan, denontzat irekia. Gaztelaniaz.

## 22 MARTITZENA

**17:00** Mad science steam: aldaketa klimatikoari aurre egiteko ekintzak. LH3 eta LH4koentzat, Udal Liburutegian.

**17:00** Bakarrizketa: Raquel Molina. Adinekoen hilabetearen barruan, Jubilatuen Biltokian.

## 23 EGUAZTENA

**17:00** Kafe tertulia: Pello Arrietarekin, Lanbide Heziketaren 125. urteurrenari buruz. Adinekoen hilabetearen barruan, Jubilatuen Biltokian.

## 24 EGUENA

**18:30** Filma: 'Operación H'. Nestor Basterretxearen mendeurrenaren harira, Erreminta Makinaren Museoa.

## 25 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Primital time'. Herriko Antzokian.

**19:00** Txirristaka kantuz jaialdia. Mendaron, Herriko Enparantzan.

## JOLASAREN ASTEA

### 0-5 URTE

#### Urriak 24 eta 25

**17:30-19:00** Jolas librea

Lekuederren

\* Euria egiten badu, 24an soilik egingo da, elizako arkupean.

### 5-12 URTE

#### Urriak 22

**17:00-19:00** Bingoa, San Lazaron. Izena eman behar da, Ludotekan.

#### Urriak 23

**17:00-19:30** Sortu zure jolasa. Ludotekan. LH2-LH3koentzat (16:30-18:00) eta HH5-LH1ekoentzat (18:00-19:30).

#### Urriak 24

**17:00-19:00** Kanpo jolasak. Urazandin. (Euria bada, Ludotekan).

#### Urriak 26

**10:00-13:30** Erronka jolasa + hil amaierako azokako artile tailerra. Ludotekan batuko dira.

### 12-18 URTE

#### Urriak 23

**17:00-19:00** Impact jolasa sortu. Gaztelekuan.

#### Urriak 24

**17:30-19:00** Pintxo txapelketa. Gaztelekuan.

#### Urriak 27

**17:30-19:00** Nintendo Swich. Gaztelekuan.

### GUZTIENTZAT

#### Urriak 25

**17:00-19:00** Jolasa Plazara. Kalegoen plazan. (Euria bada, elizako arkupean).





Saioa Rodriguez





## *Ma Pilar Juaristi San Martin*

Elgoibarren hil zen, 83 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Zure kuadrilla



## *Ma Pilar Juaristi San Martin*

Elgoibarren hil zen, 83 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barreanean  
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



III. URTEURRENA

## *Pako Kortaberria Unzueta*

*"Sagartei"*

2021eko urriaren 11n hil zen, 92 urte zituela.

***Beti gure bihotzean.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

## *Severi Aranguren Urkidi*

2023ko urriaren 16an hil zen, 87 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
domekan, urriaren 20an, 11:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretanoi, alde zurretik eskerrak.

***Beti gure bihotzetan.***

Etxekoak





# JOLASIAN

HAZI. HEZI. BIZI.



0-5 URTE

Urriak 24 eta 25

17:30-19:00

Lekueder parkean

\*Euria eginez gero, ekintza urriaren 24an egingo da, soilik elizako arkupeetan

JOLAS LIBREA



5-12 URTE

Urriak 22, 17:00-19:00

\*Izen-ematea, aurrez, Ludotekan

Urriak 23, 17:00-19:00

LHZ - LH3 → 16:30-18:00

HH5 - LHI → 18:00-19:30

BINGOA SAN LAZARON



SORTU ZURE JOLASA

Ludotekan



Urriak 24, 17:00-19:00

\*Euria eginez gero, Ludotekan

KANPO JOLASAK

Urazandin



Urriak 26, 10:00-13:30

ERRONKA JOLASA +

HIL AMAIERAKO AZOKAKO

ARTILE TAILERRA (Aurkezaren parte)

Ludotekan elkartuko gara



12-18 URTE

Urriak 23, 17:00-19:00

Urriak 24, 17:30-19:00

Urriak 27, 17:30-19:00

\*Ekintza guztiak Gaztelekuan

IMPACT JOLASA SORTU



PINTXO TXAPELKETA



NINTENDO SWITCH



JOLASA PLAZARA!

Kalegoen plazan



ADIN GUZTIENTZAT

Urriak 25, 17:00-19:00

\*Euria eginez gero, elizako arkupeetan

EGITARAU OSOA



<https://labur.eus/kQ5Nz>

